

Ederrena

Erdoka bezala itsasten zaigu ideologia, ezarian. Kirolarekin lotutako epika ustez arrisku gabetik hasita askoz nabarmenagoak diren ministroen ateraldiak, indarra hartzen ari da nazionalismoa, desberdinak eta diferenteak eta bereziak eta onenak egiten gaituen horren etengabe goratze bat dago bazter guztietan; gure jatorri jatorraren bilaketa bihurtzen da arkeologia: hementxe ginen orain dela bi mila urte, hementxe gara bi mila urteren ostean ere; sukaldaritza berriz, mundaian denik eta bizimodurik onena dugulako ustea zabalteko tresna: hemen

bezala ez da inon jaten, esaten du Arza-kek telebistan, eta denak uzten ditu pozik. Eta gero dena ederra da.

Baskoien hirian nitrogeno likidoarekin prestatutako plateren aztarnak aurkitu omen dituzte, gulen entsalada epelaren hondarrak, Argiñanoren txisteak ostraraketan.

Zinikoa bihurtzeko ematen dit beldurrik handiena, eta autozentsurak.

Ezarian itsasten zaigu ideologia, erdoka bihurtu arte. Espartzuarekin jardunda ere ez da erabart joaten.

Euria bezala dator gotik behera, blai egiten zaitu, hezurren munitaraino sarten zaizu, hor

zabiltza euripean, ideologia dominantearen morroi, daukazuunik ere jakin gabe.

Eta gero dena ederra da. Ederrena.



Jira
Xabier Gantzarain

Aitzindariak

Lotsagorritu egin ginen telebistari begira 1982an, *Verano azul* sail miretsiko Bea ederrari hilekoa lehen aldiz jaitsi zitzaionean; egoera deserosoetako ezultxoak nagusitu ziren etxe askotako egongeletan. Izan ere, hilekoa eta, oro har, emakumeon gorputzarekin eta, bereziki, sexualitatearekin lotuta zegoen guztia isilekoa, ezkutukoa eta lotsatzekoa zen.

1983an, lotsagorritu baino gehiago, zorabiatu egin ginen, Barakaldoko Vulpess punk-rock taldeak pantailatik *Me gusta ser una zorra* kantatu zigunean. Eskandaluak aise gauditu zuen etxeko egon-



Bira
Idurre Eskisabel

gelen eremua, eta lehen mailako gai politiko bihurtu zen hego euskal herritarren eremua. Izan ere, neraberentzako telesail azukretsuetan *hilekoko* hitza aipatzen zela asaldatzen zen jendarte hartan, («Maitasunez hizketan bazatozkit[...] / utzidazu nire iritzia ematen: / begira, mozoloa, eman diezazu teta popatik, / puta bat izatea gustatzen zait!») kantatzen zuten lau neska gazte haiek kontzientzia zintzoak zartarazten zituzten lehergaiak ziren.

Orduko neska nerabeok denbora behar izan genuen mezu bortiz hura liseritu eta geure egiteko: gure gorputza, gure sexualitatea, gure desioak

gureak direla; geu. Vulpess izan genuen xaxatzaleetako bat.

Rockaren eta emakumeen arteko harremana plazara

ekartzen hasi garen honetan, ez ditzagun ahaztu.

Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

Zuzendariordea:

Iñaki Pexxarroman

Edizio arduraduna:

Andoni Alvarez

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea:

Bidiera

Publizitatea:

publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

071284059

Egoitza nagusia:

Martin Ugaldel kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoak:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidiera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 14/10/2012

Exempleaire: 2.889

Editeur: Euskal Editorea s.l.

Directeur de publication:

Martxelo Otamendi

Comission paritaire:

071284059

Delegation Labourd:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: 945-14 83 07.

Posta elektronikoak:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoak:

bizkaia@berria.info.

Lapurd: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoak:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratzeko Monaste-

rioa, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoak:

nafrarrea@berria.info.

Bake-legea: proposamen bat

Jon Mirena Landa

Zuzenbideko irakaslea EHUan

Legegintzaldia bukatzeke zorian dagoenean une egokia izan daitezke bake kontuetan herri-ikuspegi proposamenak egiteko. Zein urrats egin beharکو genuke motibazio politikoa ondoz bizi izan dugun indarkeria-aldia behar bezala gainditzin joateko? Proposamena badut, simple samarra: bake-lege bat onartu Euskadiko esparruan.

Abiapuntua. Euskadiko Autonomia Erkidegoan azken hamarkadatan biktimen politikak ETAREN terrorismoari aurre egiteko estrategiatik bideratuak izan dira. Sinbolikoki Espainiako Estatuak egin zuen lehenengo legea, biktimen legea, 1999an onartu zen. Euskadiko legediak, fultsean, Espainiakoaren ildotik jarraitu zuen, ziurrenik maila politikoa eta mediatikoa eragiten zuen presio itzelaren ondorioz. Eta prezioz ari naiz, izan ere aipatu legeek fultsean ETAREN biktimak besterik ez baitzuten kontuan hartzen. Horrela bai Espainian, baina baita Euskadin ere ETAREN biktimak diskurtso bakar baten molde-tik pasaraziak izan ziren, biktimei zor zitzaizena emateaz aparte, alderdikerian oinarriturik, euskal aber-tzetatasunaren aurka jotzen zen bitartean. Biktimen politikak, labur esanda, giza-eskubideen diskurtsoa monopolizatu eta zanpatu egin zuen, «beste» biktimen erre-aliitatea ukatu eta baztertzearekin batera.

ETAren behin betiko armak uztea. Berez doa biktimen politikak

asimetrikoak, diskriminatzaileak eta, eduki batzuen kasuetan, neurritz kanpokoak izan arren, ez zego-ela modurik haiei politikoki aurre egiteko, ETAK hiltzen jarraitzen zuen neurrian. Odolak eta izuak ez-tabaida publikoa eta gizalegezkoa —giza eskubideena ere barne— lurperatzen zuten eta Ezker Abertzaileak, bere aldetik, giza eskubide batzuk, eta ez beste batzuenak, errebindikatzen, ez zegoen aurrera egeritrik. Baina ETA gelditu da eta, antza denez, betiko.

Etorkizuna: bake-legerantz. Ar-mak isilik, giza eskubideen diskurtsoa berregin beharra dago. Berregin diot, zeren eta giza eskubideen diskurtsoa soberan erabili baita «alde batekokeriare» menpean. Inor gutxi defendatu du «denon giza eskubideak denontzat» diskurtsoz eta ekinez, ahoz eta zinez. Bada, orain, beraz, garaia giza eskubideen ondarea denona bihurtzeko. Eta horretarako Euskadiko Bake-Legea tresna egokia izan daiteke.

Bake-legeak terrorismoaren gaineko arauketa barne hartu behar du. Alegia, ETAREN biktimen politika hor ezarri, jada indarrean dugun 2008ko Euskadiko Terrorismo Legea hortara ekarri. Baina horren ondoan, ETAREN ez diren terrorismoa ere arautu behar da: bake-legean bertan. Horie dago-kienek, lehenik eta behin, egia-politikak eta neurriak arautu behar ko dira, zer gertatu zen jakin ahal izateko.

Terrorismoa ez ezik, Estatu alde-tiko beste giza eskubideen urra-ketak ere Bake-legean arautu behar-ko lirateke: hau da, kalean, istilue-tan, manifestazioetan,

atxiloketa-tokietan, espetxeetan eta abarretan egindako abusuak eta torturak, polizia-jardunean hildako eta zauritutakoak. Horiek guztiak Bake-legean badute leku: lekua behar dute. Hemen, ETAREna ez den terrorismoaren kasuan bezalaxe, egia-politikak eta egitarr-auak dira lehentasuna, zer gertatu den argitzea.

Bake-legean oroimen historiko-aren inenez ezagutzen denak egon behar du. Espainiako Estatuak oroimen historikoaren legea onar-tu arren, bere edukian eskasik dira nagusi. Guda zibilaz geroztik izandako giza eskubideen urraketa larriak ezin dira gure baketik at mantendu: Euskal Bake-legera ekarri behar ditugu.

Geure oroimen historikoaren euskal legea behar dugu, bake-legearen baitan.

ETAren terrorismoa, Estatuaren terrorismo eta bestelako giza esku-bideen urraketak, Guda zibilaz geroztik izandakoak, denak, lege-eu-ritako berberean, bake-legean, ego-tea da proposamena. Ez terroris-mo-lege bat, hementik; «beste bik-timen» dekretu bat edo bi, hortik; eta oroimen historikoaren inguru-ko neurri batzuk, handik. Denak, motibazio politikoa duten giza-es-kubideen urraketa larriak diren neurrian, estandar berberen arabe-ria tratatua behar du izan: alegia, asimetriari gabe; politikakeriari gabe; diskriminazioari gabe. Beste hitzetan: behingoz gure zauriak, denak, serio hartzen, serio zain-tzen, mailarik gabe, herri-ikuspe-giz, sufritu duenaren kolore politi-ko kontuan hartu gabe. Eta dena kontakizun publiko orekatu baten oinarri sendoko ezartzekotan.

Horretarako, bake-legean bertan Giza Eskubideen Institutu bat sor-tu beharra dago (aurreko legegint-zaldian zintziluki geratu zena) eta horri enkargua eman, legean ber-tan ezartzen diren politikak aurre-ara eramateko. Hori bai, Institutu hori independentea izan dadila, legez ezarrita eta gobernua finan-tzaturik baina aske jarduteko or-duan nazioarte mailan Pariseko Printzipioek ezartzen dutenaren arabera.

Bake-legeak, laburbildurik, giza eskubideen urraketak arautu ez ezik, horien gaineko politikak norik eraman behar dituen aurrera ere ezarrita utziko luke, politika hauek joko politikotzaren atza-parretatik ateratzeko. Institutuak biktimentzat zerbitzu pertsonal-ak (osasun-, lan-, eta abarreko espa-r-rukoak, kalte-ordainak, hurbiltas-un instituzionala...) kudeatuko lituzke; elkar-teantzat sustan-politika ere bai; baita ere maila kolektibo-sinbolikoa aurrera era-man beharreko politikak (aitorpe-nak, omenaldiak, oroitarriak, gomuta-lekuak, oroitzeko ekital-diak...) iraganean gertatu denaren gaineko «kontakizun» kritiko eta eraikitzaile sortzeari begira. Kontakizun kritikoak, sendagarria ez errepikatuko neurriaren moldez. Hortan, Institutua giza eskubide-en hezkuntza diseinatu eta gitara eramateko tresna egokia izan lite-ke, legegintzaldiz legegintzaldi ildo koherente eta epe luzekoa egon dadin.

Bake-legea hurrengo legegint-zaldian egingarria da! Eta horren lau urteak nahiko izan daitezke herri-hitzarmena gaiotan lortzeko. Legea Bake-plan baten ostean etor daiteke, Legebiltzarreko lantaldez osaturik. Baina estrategia gorabe-hera, legerantz zuzendu behar da hasieratik ekimena. Legea: herri-tik herriarentzat; herriaren mese-derako; biktimen bermea; loka-rriak askatzeko; bakegile; justizia sustatzaile; etorkizun hobea eta askearen hazia. Halako bake-legea bultzatu eta onartzeko lan egingo lukeena bai *hidergo* hitzaren baitan kabitzeak!